

**Jasangarritasun-faktoreei buruzko  
inbertsio-erabakien gorabehera kaltegarri  
nagusiei buruzko behar bezalako  
arretaren politikei buruzko adierazpena**

Kutxabank Pentsioak

---

2.0 bertsioa – 2024/07/08

## Aldaketen kontrola

---

Bertsioen historikoa		
Bertsioa	Data	Egindako aldaketen laburpena
1.0	2024/06/30	Lehenengo bertsioa
2.0	2024/07/08	Bigarren bertsioa

Erantzukizuna	
Izena	Finantza Arloa

## Eragindako dokumentazioa

---

Dokumentazioa	
ID	Izena
-	
-	

# Aurkibidea

---

1.	Sarrera .....	4
2.	Gorabehera kaltegarriei buruzko gardentasuna .....	5
	2.1 Gorabehera kaltegarri nagusiak identifikatzeko eta lehentasunak finkatzeko politikei buruzko informazioa .....	5
	2.2 Jasangarritasunaren arloko gorabehera kaltegarri nagusiak eta hasitako edozein ekintzaren azalpena, egokia denean .....	7
	2.3 Inplikazio-politiken laburpena .....	12
	2.4 Enpresa-jokabideen kode arduratsuen eta nazioarteko arauen errespetua, arreta egokiaren eta txostenak egitearen arloan, eta, hala dagokionean, Parisko Akordioaren epe luzerako helburuekin bat etortzea.....	12
3.	I. eranskina: Arau-esparrua .....	13

# 1. Sarrera

Kutxabank Pensiones SAU Pentsio Fondoaren Erakunde Kudeatzailearen iritziz (aurrerantzean, “**Kutxabank Pentsioak**” edo “**Erakundea**”), alderdi ekonomikoez eta finantzarioez gain, IGG dimentsioak (ingurumen-, gizarte- eta gobernu oneko faktoreak) inbertsioa erabakitzekeo prozesuan integratzeak, inbertsio-arriskuen eta -aukeren ebaluazio sakonagoa egitea ahalbidetzen du.

Kutxabank Pentsioak azken inbertitzaileei eta gainbegiraleei jakinaraziko die produktu batzuen inbertsioen gorabehera kaltegarri nagusiei buruzko informazioa, zehazki, banakako sistemako planak osatzen dituzten pentsio-fondoei buruzkoa (aurrerantzean, Banakako Pentsio Fondoak) eta autonomoen enplegu-pentsio plan sinplifikatua osatzen duen enplegu-pentsioen fondoari buruzkoa (Andaluziako Ekonomialarien Kontseilua, PPESA), hau da, plan horiek nola eragiten dieten modu negatiboan ingurumen, gizarteL eta gobernu arloko faktoreei.

Dokumentu hau jasagarritasun-faktoreei buruzko inbertsio-erabakien gorabehera kaltegarri nagusiei buruzko behar bezalako arretaren politikei buruzko adierazpen bat da, edozein inbertitzailek horri buruzko informazioa izan dezan.

Kutxabank Pentsioak konpromisoa hartzen du kudeatzen dituen planei dagozkien gorabehera kaltegarri buruzko adierazpen hori etengabe eguneratuta edukitzeko.

## 2. Gorabehera kaltegarri buruzko gardentasuna

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko 2019/2088 (EB) Araudiaren 4. artikulua, finantza-zerbitzuen sektorean jasagarritasunari buruzko informazioa zabaltzeari buruzkoak, betebeharrak hauek ezartzen dizkio Kutxabank Pentsioak enpresari, finantza-merkatuetan parte hartzen duen aldetik:

- Jasagarritasun-faktoreei buruzko inbertsio-erabakien gorabehera kaltegarri nagusiak kontuan hartuz gero, gorabehera kaltegarri horiei buruzko adierazpen bat argitaratzea eta bere webgunean ostatatuta edukitzea, haien tamaina, izaera eta jardueren eskala kontuan hartuta.
- Adierazpen horrek honako hauek jasoko ditu, gutxienez:
  - a) jasagarritasunaren arloko gorabehera kaltegarri nagusiak identifikatzeko eta lehentasunak finkatzeko politikei buruzko informazioa, baita horri buruzko adierazle nagusiei buruzkoa ere;
  - b) jasagarritasunaren arloko gorabehera kaltegarri nagusien deskribapena, baita horiekin lotuta abiarazitako edo programatutako edozein ekintzaren ere, egokia denean;
  - c) inplikazio-politiken laburpen laburrak;
  - d) enpresa-jokabidearen kode arduratsuak eta nazioarteko arauak errespetatzeari buruzko aipamena, arreta egokiari eta txostenak egiteari dagokienez, eta, hala dagokionean, Parisiko Akordioaren epe luzerako helburuekin bat etortzeari buruzko aipamena.


Dokumentu honek, beraz, aktiboak kudeatzeko jarduera garatzeko ezarritako arreta egokiko prozedurei buruzko informazioa jasotzen du, erabakiak hartzean eta inbertsio-prozesuan jasagarritasun-arriskuak nola integratzen diren gardentasuna sustatzeko helburuarekin.

## 2.1 Gorabehera kaltegarri nagusiak identifikatzeko eta lehentasunak finkatzeko politikei buruzko informazioa

Inbertsio jasangarritzat hartzen da ingurumen- edo gizarte-helburu bati laguntzen diona, betiere inbertsio horrek helburu horiei nabarmen kalterik egiten ez badie eta inbertsioak jasotzen dituzten enpresek gobernantza-jardunbide egokiak badituzte.

Horrez gain, “materialtasun bikoitzaren” printzipioa bete behar da:

- **Materialtasun finantzarioa.** Inbertsioen garapenari eta errendimenduari eragiten dioten gaiak dira, eta kanpoko kausek haien balioari nola eragin diezaioketen adierazten dute. Adibidez, berotze globalak edo kutsadurak nola eragin dezaket enpresa baten jardunean.
- **Materialtasun ez-finantzarioa** (ingurumena eta gizartea). Inbertsioek ingurunean duten eraginarekin zerikusia duten gaiak dira, batez ere ingurumenean eta pertsonengan.



Dualtasun horrek esan nahi du, dibulgazio-araudi hau betetzeko, Kutxabank Pentsioesek jasangarritasunaren arloan duen planteamendua definitu eta publiko egin behar duela, ikuspegi honetatik:

- **Finantzarioa:** Gardena izan behar du jasangarritasun-arriskuak inbertsio-erabakietan integratzeari dagokionez, baita arrisku horiek eskaintzen dituen produktuen errentagarritasunean izan dezaket eraginaren ebaluazioari dagokionez ere, Kutxabank Pentsioen Jasangarritasun Arriskuak Integratzeko Politikaren arabera;
- **Ez finantzarioa:** Gardena izan behar du IGG faktoreetan inbertitzeko erabakien ondorioei dagokionez, gorabehera kaltegarri nagusiak (GKNak) kontuan hartzea barne, bai erakunde-mailan, bai, hala badagokio, produktu-mailan.

Testuinguru horretan, gorabehera kaltegarri buruzko behar bezalako arretaren politikek kudeatutako zorroen inbertsioek jasangarritasun-faktoreetan duten eragina monitorizatu nahi dute (aurreko grafikoaren beheko aldea).

Gorabehera kaltegarri nagusiak identifikatzeko prozesua zuzenean lotuta dago inbertsio-erabakiak hartzeko prozesuarekin.

Lehenik eta behin, arlo, industria, sektore edo enpresa jakin bateko jasangarritasun-faktore garrantzitsuak identifikatzen dira. Horretarako, erreferentziak erakundeen materialtasun-analisi desberdinak egiten dira,

eta horretarako kontratatutako IGG analisi-hornitzaileen euskarria eta informazio-iturri publikoak izan daitezke. Aurrekoaren arabera, zorroak eraikitze eta kudeatzeko prozesuan txertatzen diren adierazle materialak identifikatzen dira, enpresak ezarritako prozeduren arabera aktiboak hautatuz eta esleitzuz.

Gainera, egindako inbertsioen jasangarritasunaren kontrako eraginak aztertzen dira. Hau da, zorroa eraiki ondoren, enpresak zorro horietako bakoitzak egindako inbertsioen jasangarritasun-inpaktu kaltegarrien azterketa eta jarraipena egiten du, intzidentzia kaltegarrien adierazle bilakaeraren bidez. Ingurumen- edo gizarte-inpaktuak handitzeagatik edo konpromisoak edo politikak ez betetzeagatik, besteak beste, eragin kaltegarrien bat egon daitekeela identifikatuz gero, arrazoiak ebaluatzen dira eta, beharrezkoa denean, arintze- eta zuzenketa-ekintzak gauzatzen dira. Neurri horiek inbertsio gehigarri ez egitea, esposizioa murriztea edo behaketan jartzea izan daitezke. Neurri horiek, hala badagokio, jabetza aktiboa gauzatzearekin osa daitezke, inplikazio-ekintzen bidez, hala nola elkarrizketa edota boto-eskubidea erabiltzea, inbertitutako enpresaren partaidetzaren arabera.

## 2.2 Jasangarritasunaren arloko gorabehera kaltegarri nagusiak eta hasitako edozein ekintzaren azalpena, egokia denean

Jarraian, hartu diren GKN-Gorabehera Kaltegarri Nagusien adierazleen taula zehaztu da, honako eremu hauekin:

- **Eremua:** GKNk zer subjektu motari egiten dion erreferentzia adierazten du: enpresa, zor subiranoa ala benetako aktiboak.
- **Zutabea:** GKN ingurumen- edo gizarte-eremuko den adierazten du. Gaur egun, GKNek ez dituzte gobernantza-alderdiak jasotzen, baina araudiak eta gure barne-ereduek beste atal batzuetan jasotzen dituzte.
- **Gaia:** literala. Bertan, hainbat GKN sailka daitezke, gaiaren arabera.
- **GKN:** GKN zenbakia.
- **Adierazlea:** intzidentzia maila ezagutzeko neurtu beharreko aldagaia.

Ondorengo eremuek GKN jakin bat nola hartzen den kontuan jasotzen dute. Batzuetan, GKNaren zati bat hartzen da kontuan, eta hori "■" batekin adierazten da.

- **Bazterketa:** erosi ezin diren jaulkitzaileak.
- **Integrazioa:** kontuan hartzen da inbertsioak eta arriskuak kudeatzerakoan, gainerako finantza-aldagaiekin batera.
- **Inplizitua:** zeharka jasotzen da, aldagaien edo antzeko alderdien bidez, eta, beraz, espero izatekoa da IGG politiketan (bazterkeria, integrazioa, inplikazio-politika, etab.) jardun egokia izateak emaitza ona ekarriko duela GKNn.
- **Beste batzuk:** integrazio gehigarria honakoen bidez: inplikazio-politikak, barne-mugak, bonu berdeak, sozialak, jasangarriak edota eta jasangarritasunari lotutakoak.

Kasu guztietan, eta bereziki aldagaia integrazio-ereduan zuzenean ez dagoenean, hala nola GKNren bazterkeria partzialaren edo zeharkako estalduraren kasuetan, lortutako emaitzen jarraipena egingo da, ezarritako metodologia optimizatze aldera.

## Nahitaezkoak

Eremua	Zutabea	Gaia	GKN	Adierazlea	Baztertua	Integratzen	Zeharkakoa	Beste batzuk	
Enpresak	Ingurumena	Berotegi-efektuko gasen isuriak (GHG)	1	BEG Berotegi Efectuko Gasen emisioak				*/**	
			2	Karbono-aztarna					
			3	Karbono-intentsitatea					*/**
			4	Erregai fosilekiko esposizioa					*/**
			5	Kontsumitutako eta ekoiztako energia ez-berriztagarriaren %					*/**
	Gizartea	Bioaniztasuna Ura Hondakinak	NBERen Ituna eta ELGAREN printzipioak	6	Klima-inpaktua duen energia-kontsumoaren intentsitatea				*/**
				7	Bioaniztasun inaktu negatiboaren %				*/**
				8	Ur-isurketen intentsitatea				*/**
				9	Hondakinen intentsitatea				*/**
				10	Printzipioen urraketa %				*/**
				11	Betetze-politikarik gabe (%)				*/**
				12	Generoko soldata-arraila				*/**
				13	Emakume kontseilarien %				*/**
				14	Arma eztabaidagarrien esposizioaren %				*/**
				15	Karbono-intentsitatea				*/**
				16	Urraketak: Nazioarteko itunak, NBERen printzipioak, etab.				*/**
Subiranoak	Ingurumena Gizartea	Karbono intentsitatea Urraketak: Nazioarteko itunak, NBERen printzipioak, etab.	17	Erregai fosilekiko esposizioa				n/a	
			18	Energia ez-eraginkorren eraginpean egotea				n/a	
Benetako aktiboak	Ingurumena	Erregai fosilekiko esposizioa Energia ez-eraginkorren eraginpean egotea	17	Erregai fosilekiko esposizioa				n/a	
			18	Energia ez-eraginkorren eraginpean egotea				n/a	

\* Ingurumenari zein gizarteari dagokionez, integrazio gehigarria barne mugen bidez: bonu berdeak, sozialak eta jasagarriak.

\* Inplikazio-politika bat dago – enpresekiko elkarriketa eta botoa – puntu horiek kontuan hartzeko.

- 1) BEG integratzeko aukeratutako aldagaia BEG intentsitatea da, modu batera edo bestera lehen 6 GKNak jasotzen dituena. Gainera, ikatz termikoan jarduera handia duten enpresak kanpoan geratzen dira.
- 2) Petrolio-hareetan eta eskistoan esku hartzeari buruzko bazterketak daude.
- 3) Inplizituki 10. GKN betetzeko.
- 4) Zeharka, emakumeak zuzendaritzako lanpostuetan sartzeari jarraipenak.
- 5) Herrialdeko IGG kalifikazioaren parte da.
- 6) Herrialdeko IGG kalifikazioaren parte da. Gainera, zigorraren ondoriozko bazterketa-politikak daude.
- 7) Benetako aktiborik gabe.

## Borondatezkoak

Eremua	Zutabea	Gaia	GKN	Adierazlea	Baztertua	Integratzen	Zeharkakoa	Beste batzuk
	Ingurumena	Bonu berdeak	17	Portzentaia bonu ez berdeetan				**
			1	Lan-istripuak prebenitzeko politikak				**
	Gizartea	Lan-istripuak	2	Istripuen ratioa (batez besteko haztatua)				**
			3	Istripuengatik galdutako denbora, etab.				**
	Zergak		22	EBrekin kolaboratzen ez duten jurisdikzioak (zergak)				**

'Bai ingurumenari dagokionez, bai gizarteari dagokionez, integrazio gehigarria barne-mugen bidez: bonu berdeak, sozialak eta eta jasagarriak  
"Inplikazio politika bat dago – enpresekiko elkarriketa eta botoa – puntu horiek kontuan hartzen dituena  
Osasunaren eta ongizatearen esparruan, "tabakoaren" produktuarekin lotutako bazterketak daude  
Lan-esparruan lan-baldintzekin eta talentuari eustearekin lotuta, langileen txandakate-ratioa hartzen da kontuan

Banakako eta enpleguko pentsioen fondoan inbertsioen inpaktuaren jarraipen-adierazleak ezartzerakoan, ondorengo gorabehera kaltegarriak ebaluatuko dira:

#### INBERTSIOAK JASOTZEN DITUZTEN ENPRESETAN APLIKATU BEHARREKO ADIERAZLEAK

1. Berotegi Efektuko Gasen isuriak (BEG edo GHG ingelesez)

Inbertsioak jasotzen dituzten enpresek sortutako BEG isurien bolumena neurtzen du. 1. irismena inbertitutako enpresen jarduerak zuzenean sortutako isuriei dagokie, eta 2. irismena, berriz, inbertitutako enpresek kontsumitutako energiatik eratorritako zeharka sortutako isuriei.

2. Karbono-aztarna

Inbertsioak jasotzen dituzten enpresek sortutako BEG isurien bolumenaren batura neurtzen du, enpresaren balioaren milioi euro bakoitzeko.

3. Karbono-aztarnaren intentsitatea (inbertitutako enpresen berotegi-efektuko gasak)

Enpresaren salmenten milioi euro bakoitzeko berotegi-efektuko gasen isurketen aztarna neurtzen du, batez besteko haztatu gisa adierazita.

4. Erregai fosilekiko esposizioa (enpresa-aktiboekiko 1. esposizio-maila, erregai fosilen sektorean)

Erregai fosilen sektorean enpresa aktiboetan egindako inbertsioen proportzioa neurtzen du.

5. Kontsumitutako eta ekoiztutako energia ez-berriztagarriaren proportzioa

Energia ez-berriztagarriaren kontsumoaren eta energia ez-berriztagarriaren ekoizpenaren proportzioa inbertsioak jasotzen dituzten enpresetan, erabilitako energia-iturri guztien (berriztagarriak eta ez-berriztagarriak) ehuneko gisa adierazita.

6. Klima-inpaktua duen energia-kontsumoaren intentsitatea.

<sup>1</sup> Erregai fosilen sektoreko enpresa aktibotzat honako hauek hartzen dira:

i Dirua honakoetatik jasotzen dutenak: harrikatzen eta lignitoaren ustiaketa, erauzketa, banaketa edo fintzea.

ii Erregai fosil likidoen esplorazioa, erauzketa, banaketa (garraioa, biltegitratzea eta merkaturatzea barne) edo berfinketa

iii erregai fosil likidoak fintzetik eta erregai fosil gaseosoak edo horien banaketa espezifikotik (garraioa, biltegitratzea eta merkaturatzea barne) eratorritako diru-sarrerak lortzen dituzten enpresak.



7. Bioaniztasunaren eragin negatiboa duten inbertsioen proportzioa

Bioaniztasunarekiko sentikorrek diren eremuetan, edo haietatik gertu, kokatuta dauden edo lan egiten duten enpresetan egindako inbertsioen proportzioa, enpresa horien jardueren eremu horietan eragin negatiboa dutenean.

8. Uren isurketen intentsitatea

Enpresek sortutako uretara egindako isurketen tonak, inbertitutako milioi euroko, batez besteko haztatu gisa adierazita.

9. Hondakinen intentsitatea

Enpresek sortutako hondakin arriskutsu eta erradioaktiboaren tonak, inbertitutako milioi euroko, batez besteko haztatuan.

10. Printzipioak urratzen dituzten inbertsioen proportzioa

NBEren printzipioak edo ELGAren enpresa multinazionalerako gidalerroak urratzen dituzten enpresetan egindako inbertsioen proportzioa.

11. Betetze-politikarik gabeko inbertsioen proportzioa

Enpresetan egindako inbertsioen proportzioa, NBEren printzipioak edo ELGAren enpresa multinazionalentzako gidalerroak betetzeko politikarik gabe edo, urraketa horiei aurre egiteko erreklamazioak izapidetzeko mekanismoak gabe.

12. Generoko soldata-arrakala

Enpresen generoko batez besteko soldata-aldea.

13. Genero-aniztasuna gobernu-organoetan ( %)

Inbertsioa jasotzen duten enpresen gobernu-organoetako kide diren emakumeen eta gizonen batez besteko proportzioa, gobernu-organoetako kide guztien gaineko ehuneko gisa adierazita.

14. Arma eztabaidagarrien eraginpean egotea

Arma eztabaidagarriak (pertsonek aurkako minak, luku bonbak, arma kimikoak eta arma biologikoak) fabrikatzen edo merkaturatzen parte hartzen duten zorroko enpresetan egindako inbertsioen ehunekoak.

15. Berdeak ez diren bonuen proportzioa

Ingurumenaren aldetik jasagarriak diren betebeharrak buruzko EBko legeriaren arabera jaulki ez diren betebeharren proportzioa.

16. Lan-istripuak prebenitzeko politikak

Lan-istripuak prebenitzeko politikarik gabeko enpresetan egindako inbertsioen proportzioa.

17. Istripuen ratioa (batez besteko haztatua)

Inbertsioa jasotzen duten enpresen istripu-tasa, batez besteko haztatuan adierazita.

18. Istripuengatik galdutako denbora

Adierazle horrek enpresen laneko gorabeherak monitorizatzen ditu, lan-denbora galtzea dakartenak, eta, beraz, lan-arriskuen prebentziorako neurrien ezarpen-mailaren hurbilketa gisa balio du.

## GOBERNUEI ETA NAZIOZ GAINDIKO ERAKUNDEEI APLIKATU BEHARREKO ADIERAZLEAK

19. Karbonoaren intentsitatea

Berotegi-efektuko gasen isurketen aztarna neurtzen du inbertsioa jasotzen duten herrialdeen BPGaren (Barne Produktu Gordina) mila milioi euro bakoitzeko.

20. Nazioarteko itunak, NBEren printzipioak... urratu dituzten herrialdeen proportzioa...

Inbertsioa jasotzen duten eta giza urraketak jasan dituzten herrialdeen kopurua (kopuru absolutua eta kopuru erlatiboa inbertsioen herrialde hartzaile guztietatik zatituta). Urraketa horiek nazioarteko itun eta konbentzioetan, Nazio Batuen printzipioetan eta, hala badagokio, zuzenbide nazionalen adierazten denaren arabera ondorioztatzen dira.

21. EBrekin elkarlanean ez dauden jurisdikzioak (zergak)

EBko jurisdikzioen zerrendan sartutako jurisdikzioetako inbertsioak, zerga-ondorioetarako lankidetzan aritzen ez direnak.

## BENETAKO AKTIBOAK

22. Erregai fosilekiko esposizioa

Erregai fosilak erauzteko, biltegitatzeko, garraiatzeko edo fabrikatzeko aktibo higiezinetan egindako inbertsioen proportzioa.

23. Energia ez-eraginkorren eraginpean egotea

Energiaren ikuspegitik eraginkorrak ez diren higiezin-aktiboetan egindako inbertsioen proportzioa.

Horrez gain, jaulkitzaile jakin batean IGG gertaera esanguratsu berriak identifikatzeko, Kutxabank Pentsioek eztabaidak kudeatzeko sistema bat aplikatzen du. Zehazki, eztabaidak monitorizatzen dira, garrantziaren arabera identifikatu eta hautatzeko. Hartu beharreko neurriak aztertu eta erabakitzen dira. Neurri horiek eragin kaltegarriaren tamainaren arabera gauza daitezke, besteak beste, eztabaidaren jarraipena egiteko, politika aktiboko neurriak hartzeko, igorlea mugatzeko edo baztertzeko.

## **2.3 Inplikazio-politiken laburpena**

Kutxabank Pentsioek Inplikazio Politika bat du, [Kutxabank Pentsioen webgunean](#) eguneratuta duena.

## **2.4 Enpresa-jokabideen kode arduratsuen eta nazioarteko arauen errespetua, arreta egokiaren eta txostenak egitearen arloan, eta, hala dagokionean, Parisko Akordioaren epe luzerako helburuekin lerrokatzeko**

Erakundeak enpresako Jokabidearen Kode arduratsua du. Kode hori Erakundearen langile guztien eskura dago, eta nahitaez bete behar dute guztiek.

Jokabide Kode horretan adierazten da jasangarritasuna Erakundearen balioetako bat dela, eta nabarmentzen da Erakundeak, sartuta dagoen gizartean aberastasuna eta ongizatea sortzeko enpresa-helburuari leial izanik, enpresa-etika arduratsua hartzen duela, Erakundearentzat balio-sorrera harmonizatzeko aukera ematen duena, garapen jasangarri batekin. Horiei esker honako hauek lortuko dira: ingurumenaren babesa, gizarte-kohesioa, lan-harremanen aldeko esparruaren garapena eta Erakundea gizartearekin lotzen duten kolektiboekiko komunikazio egiazkoa eta gardena.

### 3. Lehenengo eranskina: Arau-esparrua

Bereziki, eta aplikagarria izan daitekeen beste edozein arauri kalterik egin gabe, honako xedapen hauek arautzen dute, funtsean, adierazpen hau:

- **2019/2088 (EB) Araudia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2019ko azaroaren 27koa, finantza-zerbitzuen sektorean jasangarritasunari buruzko informazioa zabaltzeari buruzkoa.**
- **2017/828 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2017ko maiatzaren 17koa, 2007/36/EE Zuzentaraua aldatzen duena, akziodunen epe luzeko inplikazioa sustatzeari dagokionez.**
- **Commission Delegated Regulation (EU) ...I... of 6.4.2022 supplementing Regulation (EU) 2019/2088 of the European Parliament and of the Council with regard to regulatory technical standards specifying the details of the content and presentation of the information in relation to the principle of 'do no significant harm', specifying the content, methodologies and presentation of information in relation to sustainability indicators and adverse sustainability impacts, and the content and presentation of the information in relation to the promotion of environmental or social characteristics and sustainable investment objectives in pre-contractual documents, on websites and in periodic reports.**